

13R3P eta Itzuli konpainiek aurkezten dute



Antzerki numerikoa  
7 urtetik goiti

*Elodie Darquié eta Maryse Urruty-en jatorrizko ideia bat*

Hedapen Txostena

itzulikia@gmail.com / 00 33 6 79 83 25 19

# Behin Bazen Internet


*Behin Bazen Internet* ipuin teknologiko bat da. Antzerkia eta mediazio zientifikoa nahasten ditu Interneten funtzionamendua kondatzeko deneri, 7 urtetik goiti, euskaraz.

Ikusgarri autonomoa eta teknikoki arina da. Antzoki eta gela ez-ekipatueta emaiten ahal da. Ordu bat irauten du eta 80 pertsona arte biltzen ahal ditu.

13R3P Konpainiak, « *Il était une fois l'Internet* » sortu zuen 2015ko Urrian.

Ikusgarri horrek « Cité des Sciences et de l'Industrie » eta Free Fondazioaren sostengoa ukan zituen. Antzokietan (Gaîté Lyrique, Maison-Folie Beaulieu), mediateketan (Nanterre, Lille), « hackerspaces »etan (Electrolab, Faclab) eta gela ez-ekipatueta (La Terrasse – Espace d'art contemporain, Martxutako herriko gelan) emana izan da.

Konpainia Lillen kokatua da bainan Maryse Urruty sortzaileetarikoa bat, euskalduna da eta inportantea zen beretzat proiektu hori euskaraz itzultzea. Numerikoa eskuragarri izatea konpainiaren ardatz nagusia da eta *Behin Bazen Internet*, hezkuntza numeriko tresna bat bezala pentsatua izan da.



Aurkezpen filma : <https://www.youtube.com/watch?v=ko6qe6YG4Xs>

# *Lan xedeak*

## *Internet irudikatu*

« *Il était une fois... la Vie* » marrazki bizidunaren maneran, antzerkiak mundu miresgarri bat sortzen du Internet hobeki ulertzeko. Ipuinak ikusleak bidaiarazten ditu zuntz optiko kableetan. Zerbitzari, internet kutxa eta ordenagailuetan bizi diren pertsonaiak ezagutuz, Internet mundu poetiko bat bilakatzen da. Emozioa eta teknika nahastean ditugu ikusleen ikusmoldea kanbiatezko.

Istorian, hamabi pertsonaia badira, eta proiektu hortan, euskalki eta mintzatzeko manera desberdinak entzunaraziko ditugu. Adibidez, Data, gure pertsonaia nagusia, baxenafartarra da eta Digitekin, bere lagun hoberenarekin, toka-noka ari dira. Rak eta Amatxi Modem xuka ari dira, eta RJ euskara batuan ari da.

## *Ipuina*

### *Dataren Bidaia*

Behin bazen mundu bat zuntz optikoz egina. Data, internet kutxa batean bizi zen eta egun oroz eta egun guzian, paketeak eskura emaiten zituen. Egundatez, elektrika moztura batengatik, bere paketeetan sorpresa handi bat atxeman zuen, hauek zero eta batez bateak ziren. Misterio hori argitzeko, Datak, sinesgabeko bidaia hasi zuen.

### *Leku-irudikapena*

Taularen gainean, pantaila bat bada. Internet kutxa handi bat irudikatzen du eta horren gainean gure munduko leku irudikapenak bideo-proiektatuak dira. Antzezle batek hamabi pertsonaiei gorputz ematen die. Jatorrizko musikak istorioa borobiltzen du eta ikusleek bidaiarazteko kuxinen gainetik.

# Interneten gidaliburua

« Interneten gidaliburua » eraklele eta burasoentzat da. Ikusgarriaren irudiak eta errealitatea teknikoak lotzen ditu, gogoetak sakontzeko.

<http://www.13r3p.com/behinbazeninternet/>



## Testuko zati bat



Behin bazen mundu miragarri, handia, misterioitsua.  
Alde orotara zabaltzen zen, Internet zuten deitua.  
Argiz bete bide ta kableak denetara zihoazen.  
Data gure heroi tematsua, ezker-eskuin ibiltzen zen.  
13R3P zen Dataren herri lasaia,  
Kutxa handitik partitu eta, egiten zuen bidaia.  
Bizkar zakuan sartzen zituen banatzeko paketeak,  
Hala zeharkatzen ibiltzen zen argidun dorre atea.  
Beti Digitekin egoten zen, aspaldi ziren lagunak,  
biak fite-fite joaten ziren, Interneten harat hunat,  
Egun guziz bidaiatzen zuten sekulako abenturan  
Beren paketeak banatzeko, argiaren abiaduran.

## Konpainiak



### *Itzuli Konpainia*

2017an sortua eta Baionan kokatua, Itzuli Konpainiak antzerkiak sortzen ditu, euskeraz, haurtzarotik goiti.

Konpainiaren lanean, mediazioa erdigunean ezartzen da, antzerkiaren pasioa hedatzeko eta publikoa hurbilagotik ezagutzeko.

Ikusgarri bakoitzean diziplinak nahasten ditu. Adibidez, bideoa *Behin Bazen Internet* obran (2018), edo musika *Erromako Zubia* ipuinean (2020). *Oihana* proiektuak (2022) antzerkia eta dantza lotuko ditu zientzia-fikzioan.

### *13r3p Konpainia*

13R3P Konpainia, Elodie Darquié eta Maryse Urrutyen eskutik sortua izan da. Lillen kokatzen da eta bere proiektua gaur egungo gaiak aipatzea da, antzerki eta mediazio zientifikoa nahasiz. *Behin Bazen Internet*, numerikoari interesatzen zaio.

2017an, konpainiaren bigarren sorkuntza, *Bureau des Exils* atera da, migrazioak eta lan soziala aipatzen ditu.


[13r3p.com](http://13r3p.com)



## Taldea

### *Elodie Darquié*

« Sciences-Po Toulouse » ko hedabide numerikoak diploma ukanik, Elodie Darquiék lan egiten du web komunikazio eta numeriko arloetan. INRIAn lan egitean (Institut national de recherche en informatique et en automatique) mediazio zientifikoa deskubritzen du. Beste aldetik, DIY teknika eta bideo sorkuntzari interesatzen da. 2015 an, *Il était une fois l'Internet* sortzen du 13R3P konpainiarekin. Lillen bizi da eta « La Ferblanterie » kolektiboarekin lan egiten du.



[elodie.darquie@13r3p.com](mailto:elodie.darquie@13r3p.com)

### *Maryse Urruty*

Maryse Urrutyren lotura antzerkiarekin hasi zen lizeoan, Antton Lukuri esker. Gero, Zientza politikoak ikasi zituen baina taularen deia berriz entzun zuen eta L'Ecole du Jeu-Delphine Elieft antzerki eskolara joan zen. 2015 an, 13R3P konpainia sortu zuen Frantziako iparraldean eta han *Il était une fois l'Internet / Behin Bazen Internet* eta *Bureau des Exils* ikusgarriak atera zituen, bai aktore, idazle eta taula zuzendari gisa. 2017 an, Euskal Herrira itzuli zen eta Cyranoren pertsonaiari gorputza eman zion Hecho en Casa konpainiaren euskarazko bertsioan. Ordutik, mugaren bi aldetan ari da, Atx Teatroa (Bilbo) eta Hika Teatroa (Donosti) konpainiekin baizik eta Entre les Gouttes eta Itzuli (Baiona) konpainiekin.



[itzulikia@gmail.com](mailto:itzulikia@gmail.com)

## *Sorkuntza Taldea*

Antzezle eta taula zuzendari : Maryse Urruty  
Bideo sortzaile eta teknikalari : Elodie Darquié  
Itzulzaile : Txomin Urriza Luro

Argiak eta eszena: Philippe Luigi Olivier  
Musika : Ronan Martin eta Samuel Havard  
Soinuak : Leny Vincenaslas eta Ncllas Dubois

## *Itzultzailea : Txomin Urriza Luro*

2013 urtean, itzultzaile lanean hasi nintzen, urte batzuk irakaskuntzan (euskara eta frantsesa) jardun ostean. Enpresa, elkarte, erakunde eta norbanakoentzat lan egiten dut (ikus beherago). Euskara maila anitz zaintzen dut, batuari eutsiz, baina lehentasuna hartzailearen euskalkiari emanez. Jatorrizko formatuan bertan itzultzen dut, hartzaileak maketa lanik izan ez dezan. Bertze itzultzaile autonomo batzuekin elkarlanean aritzen naiz, kalitatea ahalik eta ongien zaintzeko; elkarren lanak berrikusten eta dudak argitzen ditugu. Biarritzeko Herriko Etxea, Baionako Herriko Etxea, Errobi Herri Elkargoa, Hazparneko Lurraldea Herri Elkargoa, Hego Lapurdiko Hirigunea, Akitania-Euskadi Euroeskualdea, MaraMara enpresa, Atabal Biarritz eta abarrentzat lan egiten dut erregularki. I-Ener, Euskal Moneta eta beste hainbat elkarte itzulpenak eginez laguntzen ditut.





# Harremanak



## ITZULI KONPAINIA

Hedapen eta ekoizpen kontaktua :

Maryse Urruty

+33 6 79 83 25 19

[itzulikia@gmail.com](mailto:itzulikia@gmail.com)

[facebook.com/ItzuliKonpainia](https://facebook.com/ItzuliKonpainia)

## 13R3P KONPAINIA

[hello@13r3p.com](mailto:hello@13r3p.com)

+33 7 68 60 12 85

36 rue d'Eylau, 59000 Lille

[13r3p.com](http://13r3p.com)

